



INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA
SAILA
Ingurumen Sailburuordetza
Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza

Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
Ingurumen Sailburuordetza
Ingurumen Administrazioaren
Zuzendaritza

EBAZPENA, 2016ko uztailaren 29koa, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, Hondarribia eta Irungo udalerrietako Zubieta/Urduñabia eremua Bateragarri egiteko Planaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiten duena.

AURREKARIAK

Hondarribiko Udalak, 2016ko maiatzaren 10ean, ingurumen-ebaluazio estrategikoari ekiteko eskatu zion Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari, Zubieta/Urduñabia eremua Bateragarri egiteko Planerako, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legean eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean xedatutakoari jarraikiz. Eskabidea 2016ko maiatzaren 30ean osatu zen.

Eskabideari dokumentazio hau erantsi zitzaion: batetik, Zubieta/Urduñabia eremua Bateragarri egiteko Planaren ingurumen-ebaluazioari hasiera emateko dokumentua, zeina Ekolur, SLLk idatzi baitzuen 2016ko martxoan, eta, bestetik, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren V. Eranskineko formularioa (211/2012 Dekretua, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena).

Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek, dokumentazioa aztertu ondoren, ondorioztatu zuten bete egiten zituela abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 18. artikulua eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua; beraz, abiatutzat eman zituzten Planari buruzko ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko izapideak.

2016ko ekainaren 16an, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan jasotako kontsultak egin ziren. Administrazio publiko eta pertsona interesdun hauei egin zien kontsulta ingurumen-organoak: Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia; Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreko departamentua; Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza; Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza; Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzen Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza; Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza; Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza; IHOBE, Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoa; Uraren Euskal Agentzia (URA); Euskal Herriko Itsasertz Mugartea; Itsas Enara Ornitologi Elkarte; Ekologistak Martxan (Gipuzkoa), eta Irungo Udala.

Ebazpen hau emateko datan, honako hauen erantzunak jaso dira: Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza; Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza; Kultura Ondarearen Zuzendaritza, eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzak dira guztiak).

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-erakundeak bazuela irismen-dokumentua egiteko behar adina judizio-elementu eta, beraz, ez zela beharrezkoa abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19.1 artikuluan adierazitako txosten-errekerimendua egitea.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren helburua da ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketen planen ingurumen-ebaluazioa arautu behar duten oinarriak ezartzea, eta ingurumenaren babes-maila handia bermatzea, garapen jasangarri bat sustatzeko helburuz.

Halaber, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorren 42. artikuluan arabera, ingurumen-inpaktuen ebaluazioek egoki bermatu beharko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: aukera egokienak hautatu ahal izateko, ingurumenaren gaineko eraginei buruzko azterketa plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela, betiere, kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1.a) artikuluan xedatutakoa aplikatuz, administrazio publiko batek abian jarritako edo onetsitako planei eta programei ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar zaie, bai eta haien aldaketei ere, lege- edo arau-xedapen batek beharturik prestatu eta onartu badira, betiere ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuak baimentzeko etorkizuneko esparrua ezartzen badute eta arlo jakin batzuei erreferentzia egiten badiete, hala nola hiri- eta landa-lurraldearen antolamenduari eta lurzoruaren erabilerari.

Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebaluazio bateratua egin behar da (ingurumen-ebaluazio estrategikoa) arauaren I. eranskineko A) letran jasotako planei lotuta, eta plan horien artean, Zubieta/Urdanibia eremua Bateragarri egiteko Plana dago.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ohiko ingurumen-ebaluazioa hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organismoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztea, eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egin ostean. Arau horrek 18.1 artikuluan xedatzen du zein diren hasteko eskabide horri erantsi behar zaizkion dokumentuak, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez dionetan, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaltzen eta osatu egiten du hasteko dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterlan estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterlan estrategikoaren edukiari buruzkoak, bai eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziazko dokumentuaren edukiari eta ingurumen-iraunkortasunaren txostenaren edukiari buruzkoak, hurrenez hurren.

Orain arte azaldutako guztiari jarraikiz, espedientean jasotako txostenak aztertuta eta legeek zer dioten ikusita (Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa; ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legea, abenduaren 9koa; planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa; Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 196/2013 Dekretua, apirilaren 9koa; eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, azaroaren 26koa), honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Zubieta/Urdanibia eremua Bateragarri egiteko Planaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egitea, zeina ingurumen-ondorioetarako bakarrik egingo baita, honela:

1.- Bateragarri egiteko Planeko proposamenen xedea eta jarduerak.

Zubieta-Urdanibia eremuko lurzoruaren hirigintza-antolamendu estrukturala da helburua, sustapeneko edo interes publikoko jardura ekonomikoak ezarri ahal izateko. Bai formularioak, bai ingurumen-ebaluazioa hasteko dokumentuaren memoriak, atzeratu egiten dute dagokion Plan Partzialaren garapenerako antolamendu xehatua, baina antolamenduaren alde aurreko azterketak (2010eko urria) helburu gisa ezartzen du planak eremuaren antolamendu xehatua barne hartuko duela.



Eremu bat sortu nahi da, non, produkzio-jarduera kualifikatuaren erabileraz gain, ekipamendu-erabilerak sartuko diren: lehendik daudenak (Eskualdeko ospitalea, Txingudi Ikastola eta Urdanibia jauregia eta parkea) eta beste berri batzuk: besteak beste, eskualdeko kirol-parkea, zeinak Plaiaundiko instalazioak ordezkatuko baititu.

Zubieta/Urdanibia eremua Bateragarri egiteko Planak honako hauetan jasotako estipulazioak koordinatu behar ditu: Hondarribiko indarreko Arau Subsidiarioetan, Hondarribiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra behin-behinean onartzeko dokumentuan eta Irungo Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean ((2.1.05 Eremua, Urdanibia-Zubieta).

2.- Ingurumen-txosten estrategikoaren irismen-dokumentuaren edukia.

A. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpideak.

Ingurumen-ebaluazioa hasteko dokumentuan ikus daitekeen moduan, Ingurumen Esparru Programa 2020 delakoaren helburu estrategikoak eta jarduera-ildoak izango dira oinarri nagusiak Plana lantzerakoan. Zehazki, kontuan hartu beharko da nola planak barne hartzen duen 1-3 jarduera-ildoaren 9. jarduera, zeinak honako hau ezartzen baitu: *"lurralde-antolamendu adimentsu bat ezartzearen alde egitea, zeinak populazio-dentsitate handiagoak lehenetsiko baititu eta lurzoruaren erabileren konbinazioa eta lurzoruaren kontsumoaren optimizazioa bultzatuko baititu, betiere, lurzoruaren berrerabilera eta lehengoratzeari lehenetsita"*.

Planak jaso beharko ditu, baita ere, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko Lege Orokorrean bildutako irizpideak (otsailaren 27ko 3/1998 Legea) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuan bildutakoak.

211/2013 Dekretuaren 2. artikulua aplikatuz, garapen jasangarriaren printzipio hauek zuzenduko dute planaren ingurumen-ebaluazioa:

- a) Lehendik ere artifizialdurik dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzoru eta lurzoru naturala urbanizaziotik babestuz.
- b) Hiri-segregazioa, hiriaren barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea, eta, horretarako, irisgarritasuna sustatzea, mugikortasunaren eta lurzoruaren erabileren plangintza integratuaren bidez, eta hiri-egitura dentsu, trinko eta konplexuak sustatuta.
- c) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzoru jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- d) Baliabide naturaletan aurrez dadila sustatzea: ura, energia, lurzoru eta materialak.
- e) Habitata eta espezieak, ingurune naturala eta konektibitate ekologikoa zaintzea eta hobetzea.
- f) Paisaia eta kultur ondarea kontserbatzea eta hobetzea.
- g) Honako hauek sustatzea: energia-aurrezpena, energia berriktagarien efizientzia eta erabilpena, eta kogenerazioa.
- h) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien pean bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- i) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, bai eta baliabidearen erabilera jasangarria ere.
- j) Aldaketa klimatikoaren aurreko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta egokitzeko neurriak integratuz.
- k) Arrisku naturalak gutxitzea.

Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterketak kontuan hartu behar du proposatutako jardueretan sartzen direla ingurumen-helburu estrategikoak eta jasangarritasun-irizpideak, aipatutako garapen jasangarriaren printzipioetatik datozenak.

B. Eremu geografikoa

Zubieta/Urdanibia eremua Hondarribia eta Irungo udalerrietan dago kokatuta. Urdanibia Jauregiaren hego-mendebaldeko ertzean hasi eta Betherran ingururaino doa (ipar-ekialdeko



ertzeraingo). Iparraldetik, GI-636 errepideak mugatzen du, eta hegoaldeko, Gibeleta, Puiana eta Garaia auzoak. Eremuaren barruan daude Txingudi ikastola, Bidasoa Eskualdeko ospitalea, hipikaren instalazioak, Urdanibia jauregia eta parkea, bai eta GI-636 errepidearen eta Letxunborro hiribidearen lotunea. Halaber, badira baserri batzuk eta etxebizitza bakartu batzuk.

Ingurumen-ebaluazioa hasteko dokumentuaren memoriaren arabera, planaren eremuak 560.150 m² ditu, zeintzuetatik 415.726 m² Hondarribiko udalerriri baitagozkio, eta 144.424 m², berriz, Irungo udalerriri. Horri dagokionez, desadostasuna dago antolamenduaren aldeko aurreko azterketak (2010eko urrikoak) emandako datuen inguruan (ingurumen-ebaluazioa hasteko dokumentuaren eranskin gisa aurkeztu zen azterketa).

Eremuaren deskribapen global bat eginez gero, 4 unitate bereiz daitezke, ingurumenari eta paisaiari dagokionez homogeneoak direnak.

- Ibai-lurraldea: funtsean, Jaizubiako ibarrak eta Puiana eta Letxunborro errekek dira. Nekazaritza-ahalmen handieneko guñeak dira.

- Landazabala: batez ere sega-belardiz eta larrez betetako nekazaritza-eremuak hartzen ditu, zeintzuetan, han-hemenka, honako hauek guztiak topa baitaitezke: heskaiak, zuhaitzi txikiak, baso-unadak eta fruta-arbola txikiak.

- Hariztiak-baso mistoa: hedapen txikia duten arren, hariztiak dira, eta beste espezie batzuekin batera daude: astigarra, lizarrak, hurritzak, eta, baita landare apaingarriak ere (natura-interes handikoak).

- Eremu antropizatuak: hiri-garapenak, azpiegiturak dituzten guñeak eta artifizializazio-prozesuak jasan dituzten eremuak.

C. Ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremuak

Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterketa egiteko eremuan, honako balio hauek identifikatu dira, ingurumenaren ikuspegitik:

- Batasunaren intereseko habitata: ¹ 6510, sega-belardiak eta 91EO,* alubioi-haltzadiak (*Alnus glutinosa*) eta -lizardiak (*Fraxinus excelsior*).

- Arriskuan dagoen flora egon² daiteke: salicorniak (*Salicornia obscura*, *Salicornia lutescens*), ihia (*Juncus acutus*) eta gorostia (*Ilex aquifolium*).

- Arriskuan dagoen fauna dago; besteak beste, arrain arantzaduna (*Gasterosteus aculeatus*) eta apo lasterkariaren habitata (*Bufo calamita*), zeinaren berreskuratzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuetan baitago.

- Hariztiak-hostozabal autoktonoen eta lezkadien baso mistoa, baita haltzadien lekukotasun txikiak ere.

- Urdanibiako Monumentu Multzoaren ondare historiko arkitektonikoa eta Urdanibiako guñe hidrauliko preindustrialaren eta Zubietako aztarnategiaren ondare arkeologikoa.

¹ Kontselluaren 92/43/EEE Zuzentaraua, 1992ko maiatzaren 21koa, habitat naturalak eta baso-fauna eta -flora kontserbatzearen ingurukoa.

² Agindua, 2011ko urtarrilaren 10ekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena. Honen bidez, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda aldatzen da, eta testu bakarra onartzen. Agindua, 2013ko ekainaren 18koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena. Honen bidez, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda aldatzen da.



Gainera, ingurumen-ebaluazioaren azterketak kontuan izan behar du inguruan daudela honako gune hauek: Natura 2000 Sarea, Txingudiko HBBE (ES0000243) eta Txingudiko KBE (ES2120018);³ baita gune babestuak ere: besteak beste, Txingudiko Eremuko Baliabide Naturalak Babesteko eta Antolatze Plan Berezia eta nazioarteko garrantzia duen hezegunea (RAMSAR).

D. Jarduketak egiteko egokiak ez diren eremuak.

Ingurumenaren aldetik problematikoak diren eta gerora proposamenak gauzatzean zaindu beharko diren eremuak detektatu beharko ditu ingurumen-azterketa estrategikoak. Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arriskuguneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeko aukera emango duena.

Hasierako dokumentu estrategikoan jasotzen denaren arabera, uholde-arriskua duten guneak daude eremuan. Honako hauek guztiek uholde-arriskua daukate, 10 urteko errepikatze-denborarekin: ospitalearen ipar-ekialdean dagoen baratze-eremua (Puiana errekaaren ibarra), Urdanibia errekaaren ibarbidearen zati txiki bat, Txingudi ikastolaren kirol-instalazioak eta Jaizubia errekaaren ingurua (Urdanibia parkean, errota eta burdinola dauden lekuan). Aipatutako azken hiru eremuak lehentasunezko fluxu-gunean daude. Ikastolak eta Letxunborroko ibarbideak uholde-arriskua daukate, 100 urteko errepikatze-denborarekin. Gainera, gune horren zati bat Uholde-arrisku garrantzitsuko eremuan sartuta dago (UAGE). Uraren Euskal Agentziaren txostena eskatu beharko da.

Inguru horrek duen ezaugarri hori kontuan hartuta, Letxunborro eta Puianako ibarbideko nekazaritza-polder guztiak mantentzeko aukera dagoen ikusi beharko da, garrantzia emanez faunarentzako funtzionalitateari eta padura gisa berreskuratu ahal izateari.

Hondarribiko ingurune-zarataren mapa egungo egoerara ekarrita, hasierako dokumentuak zera ezartzen du: bateragarri egiteko plan honen eremuan, GI-636 errepideko trafikoaren ondorioz sortutako immisio-mailak 65 eta 70 dB artekoak dira, egunez, errepidearen alboko guneetan. Ingurumen-azterketa estrategikoak bermatu behar du bete egingo direla 213/2013 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoaren helburuak (213/2013 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoa).

Dokumentu estrategikoak jaso behar du eremuan badirela kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak historikoki hartu izan dituzten lursailak, eta, ondorioz, balitekeela lursail horiek arriskutsuak izatea etorkizuneko erabiltzaileentzat edota ingurumenarentzat. Eremuan, bada lursail bat (20036-00029 kod.), lurzoruen inbentarioaren eguneraketaren zirriborroan agertzen dena, eta muga, beste lursail bat (20036-00004), kutsatutako lurzoruen inbentarioan agertzen dena. Kontuan izan behar dira 4/2015 Legearen estipulazioak (4/2015 LEGEA, ekainaren 25koa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa).

E. Ingurumen-azterlan estrategikoan jaso behar den informazio eta dokumentazioa.

Ingurumen-azterketa estrategikoak izango ditu, gutxienez, 21/2013 Legearen IV. eranskinean eta 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean ezarritako edukiak. Hasierako dokumentuan jasota daude, jada, eranskin horietan eskatutako alderdi batzuk; baina, hala ere, honako gai hauek nabarmendu behar dira:

- Ingurumen-azterketa estrategikoak alternatiben ebaluazioa eta azken hautaketa nola egin ziren deskribatu beharko du, eta zehaztu beharko du zergatik ez diren izan hautatutako gainerako alternatibak aukerarik onenak; halaber, nabarmendu behar du balioetsitako alternatiba bakoitzak ingurumen-helburuak lortzeko egindako ekarpena. Ildo horretatik, ingurumen-ebaluazioaren hasierako dokumentuak aditzera ematen ditu kokatze-alternatiba zenbait, zeintzuk jaso eta deskribatu egin beharko baititu ingurumen-azterketa estrategikoak.

³ 356/2013 Dekretua, ekainaren 4koa, «Txingudi-Bidasoa» (ES2120018) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen duena, eta eremu horren eta «Txingudi» Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuaren (ES0000243) kontserbazio-neurriak onartzen dituena.

Alternatibak hautatzeko prozesua garatu eta irudikatu beharko da, zeinak justifikatuko baititu bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta ingurumen arlokoa, planaren helburuekiko kongruentzia eta proportzionaltasuna, eta, batez ere, dokumentu honen A atalean identifikatutako ingurumen-irizpide, -helburu eta -printzipioei egiten zaien ekarpena.

- Ingurumen-azterketa estrategikoak aztertu behar du planteatutako proposamenak bat datozen ala ez ingurumen-balioak identifikatzen, garatzen eta babesten dituzten legeek araututakoarekin. Azterketa horretan jaso beharko da, orobat, natura-ingurunean, hau da, katalogatutako naturguneetan, landaredian eta habitatetan, flora- eta fauna-espezieetan, korridore ekologikoetan eta paisaian eragin daitezkeen kalteen analisia.

Illo horretatik, 42/2007 Legearen 46.3 artikuluan ezarritakoa eta lege horren 46.2 artikuluan jasotzen den prebentzio-araubidea betetze aldera (42/2007 Legea, abenduaren 13koa,⁴ Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa), kontuan izan beharko da neurriak hartu beharra izango dela apo lasterkariaren populazioei ahalik eta gutxien eragiten zaiela ziurtatzeko eta hegazti-faunarentzat interes handienekoak diren eremuak babesteko.

- Planteatutako jarduerak garatzeak sortutako inpaktuak identifikatuko eta balioetsiko dira. Ebaluazioaren hasierako dokumentuak egon daitezkeen ingurumen-inpaktuen analisia egiten du, betiere, unean unera eta plangintzaren eskalara egokituta. Ingurumen-azterketa estrategikoak alderdi horietan sakondu behar du, eta lurzoruaren kontsumoak izan dezakeen inpaktua barne hartu behar du, betiere, aldaketa klimatikoa kontuan izanda. Identifikatutako inpaktu guztietatik garrantzitsutzat hartutako horiek berariaz nabarmendu beharko dira.

- Ingurumen-ebaluazioaren azken faseetan, behin alternatiba guztietan egokiena aukeratu ondoren eta zer inpaktu identifikatu diren jakin ondoren, inpaktu horiek minimizatzea xede izango duten prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak garatuko dira, eta, horrelakorik egokituz gero, baita neurri konpentsatzaileak ere. Planaren ondoriozko garapen-dokumentuak egin eta ebaluatzeko ingurumen-gidalerroak ezarriko dira. Identifikatu beharko da ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren menpe dauden proiektu horietatik zeintzuek hartzen duten Plana haien garapenerako ardatz.

- Behar adina agiri grafiko sartuko dira, informazioa bizkor eta erraz eskuratu ahal izateko. Dokumentazio grafiko hori hainbat modutan aurkez daiteke: taulak, grafikoak, irudiak, argazkiak, eskala egokia duten planoak, eta abar, betiere, eranskinean ezarritako jarraibideei jarraikiz.

F. Natura Sarean izan dezakeen eragina.

Ingurumen-azterketa estrategikoak ageriko balioespina egin behar du, Natura 2000 Sareko guneetan izan dezakeen eraginari buruz.

G. Adierazle kuantitatiboak eta kualitatiboak

Hala Planaren ingurumen-ebaluazioa egiteko, nola ingurumen-zaintzako programa idazteko, ingurumen-azterlan estrategikoak adierazleak ezarri beharko ditu, Plana ezartzen den bitartean ingurumen-helburuen betetze-maila eta ingurumen-eraginen aurreikuspenak betetzen direla egiaztatu ahal izateko. Honako adierazleak erabil daitezke ingurumen-adierazle gisa: EAEko ingurumen-adierazleen sistemak garatutako ingurumen-adierazleak, zeintzuk jarduera-eremu zehatzera eta horren eskalara egokituta baitaude eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren web orrian eskura baitaitezke (Eusko Jaurlaritza, Ingurumen eta Lurralde Politika Saila → Ingurumena → Estatistikak → Ingurumen Adierazleak), EAEko udal-mailako jasagarritasun-adierazleak (Eustat → Udal-informazioa → Udalmap → Adierazleen kontsulta anitza). Ebaluazio-prozesuan kontuan hartzeko adierazle hauek proposatzen dira:

⁴ Abenduaren 21eko 33/2015 Legeak aldatua.



- Eremu osotik, planteatutako beharrezko hornitzeko eraldatu behar den azalera naturalaren ehunekoa.
- Eraldatutako ibilgu-ibarraren azalera naturalaren ehunekoa.
- Atmosfera-, soinu- eta argi-kutsaduraren adierazleak.

H. Eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei informazio publikoa ematea eta kontsultak egitea.

211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta 21/2013 Legearen 22. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta informazioa eskuratzeko eta parte-hartze publikoa izateko eskubidea bermatzeko, organo erabakitzaileak, edo, hala badagokio, sustatzaileak, jendaurreko informazioaren izapidearen pean jarriko du Plan honen hasierako bertsioa, ingurumen-azterlan estrategikoarekin batera, gutxienez, 45 egunez.

Halaber, epe horretan bertan, eraginpeko administrazio publikoen eta pertsona interesdunen iritzia jaso beharko da. Eraginpeko administrazio publikoen eta interesdunen zerrenda txosten hau egiterakoan eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsulten izapidean osatutako zerrenda da.

21/2013 Legearen 17.3 artikulua aplikatuz, gehienez ere hamabost hilabetekoa izango da ingurumen-azterlan estrategikoa egiteko eta lege beraren 20., 21., 22. eta 23. artikuluetan aurreikusitako kontsultak egiteko eta informazio publikoaren prozedura betetzeko epea, irismen-dokumentuaren sustatzaileari jakinarazten zaion egunetik aurrera.

Bigarrena.- Hondarribiko Udalari ebazpen hau jakinaraztea.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren web orrian argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailaren 29a.



INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA

Alejandra Iturrioz Unzueta
Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,

ERANSKINA
DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO ARGIBIDEAK

1.- Ingurumen-azterketa estrategikoa dokumentua idazten parte hartu duten teknikari guztiek sinatuta aurkeztu beharko da; egilea edo egileak identifikatu beharko dira, eta, horretarako, haien nortasun agiri nazionalaren kopia erantsiko da, titulazioa adieraziko da, eta, halakorik izanez gero, baita lanbide arautua ere, amaiera-datarekin eta egilearen sinadurarekin. Atal monografikoak baditu, atal horien arduradunak identifikatu beharko dira.

2.- Datuen iturriak beti zehaztu beharko dira.

3.- Plano guztiak zenbaki baten eta izenburu baten bidez identifikatu beharko dira. Halaber, honako hauek adierazi beharko dira: irudikatutako datuak zuzen interpretatzeko behar diren azalpenak eta sinboloak; eskala grafikoa eta zenbakizkoa, inprimatzeko formatua adierazita; sinadura eta noiz egin den. Jatorrizko eskalan oinarritutako formatu murriztuko planoak aurkeztuz gero, planoan jatorrian adierazitako eskala zuzendu egin beharko da, horretan oinarrituz egindako neurketek zalantzarik sor ez dezaten.

4.- Dokumentazioa, administrazio-espeditentea barne, formatu digitalean aurkeztu beharko da, eskusiboki, honako jarraibide hauen arabera:

a. Ahal dela, agiriak CD formatuan aurkeztuko dira, ahalik eta disko gutxienetan, informazio-euskarri horren edukiera ahalik eta neurri handienez aprobetxatuta.

b. Disko bakoitzean agiri guztien aurkibide osoa sartuko da, karpeta eta azpikarpetetan banatuta, disko horretan sartuko diren fitxategien mailara heldu arte. Ahal dela, aurkibide hori .html edo .doc formatuan egingo da, eta fitxategietarako hiperestekak izango ditu, diskoaren edukitik nabigatzea errazteko. .pdf dokumentu baterako aurkibidea aurkeztean, adierazitako orrialde-zenbakia bat etorriko da irakurketa programaren «Joan orrialde honetara» eremuan adierazi beharrekoarekin.

c. CDaren egiturari sartutako karpeta eta fitxategien izenak esanguratsuak izango dira. Horrela ez bada, aurretik aipatu den aurkibidean fitxategi bakoitzaren izenaren ondoren, haren edukia zehazten duen deskribapen laburra egingo da (gehienez, lerro 1).

d. Fitxategiak formatu erabilienetan entregatuko dira; hau da, .pdf, .doc, etab. Fitxategi konprimituetan, halakorik balego, .zip erabiliko da.

e. .pdf dokumentuek gehienez ere 20 MB pisatuko dute, eta bilaketak egiteko aukera eman beharko dute.

f. Dokumentu kartografikoak .pdf formatuan eta .shp formatuan entregatu beharko dira.

5.- Organo sustatzaileak datuak igortzean datu pertsonalak babesteari buruzko arautegia betetzen dela bermatu beharko du beti.